

Irati Anda



10 urterekin hasi zen eskalatzeko. Azken bi urteotan txapelketetan zentratu eta Espainiakoa irabazi du 2006-2007an. 2007ko munduko txapelketan ere 5. postua lortu zuen eta Japoniako munduko kopako proban (2007) 2. postua. Harkaitzean 8a bistaz eta 8c landurik egiteko gauza da.



GILLO MALVERN ARGAZKIA

TXOKOLATE KIKARA BEROAREN USAIN GOXOA

NIRE logelako atepeko zirrikitutik sartzen den txokolate eginberriaren usaina sumatzeaz batera zabaldu dizkiot asteko azken egunsentiarri begiak. Amatxo eta aitatxo sumatzen ditut sukaldeko mahaiaren inguruan solasean. Ziurrenik ama txokolatea irabiatzen ariko da eta aitak labean izango du opil bero eta xamurra, gainetik botatako intxaur apurak gehiegi xigor ez daitezen adi-adi. Madalena paperen antzera itsatsirik nituen izarez gabetu naizenean sukaldera abiatu naiz.

Behin tripazorriak baretuta bezperan kontu handiz prestatutako motxila hartu eta tren geltokira abiatu naiz Araiarako *expresso*a hartzeko asmoz. Motxilaren sakonean 11mm eta 60m-ko soka, zortzia bere mosketoi eta guzti, zinta luzeko 20 expres, kolore argidun arnesa, magnesio poltsa eta hau lotzeko bere kordinotxo larroxa, orkatilerainoko lokarridun katu oinak pare bat aldiz rekautxutatuak, ia jaioberri nintzeneko malla moreak tanto berdeekin (bi zulo ipurdiko ezker masailean eta Son Gokuren petatxua belaunetako batean), kaskoa eta, nola ez, gurasoek prestatutako merienda poltsa; lagun talde osoari jaten emateko moduko kargamentua eta guzti. Ura, sagar zukua, txokolate tableta, intxaurrez beteriko piku pasak, sagarra, banana eta pare bat bokadillo (aitak prestatua patata tortilla eta amak xolomoa piperekin).

Eginora iritsi, pare bat bide eskalatu eta ezkutaketan jolasten dugu egun osoa. Bainu beroa hartu, afaldu eta ohera, bihar eskola eguna da eta.

Kafe makinan bor-bor dagoen kafearen lurrinak bustitzen dituzte txoko guztiak. Bezperan merkatuan erositako urtaroko

fruitu freskoek eginiko mazedonia ari naiz gozaten gosarian. Zartaginean su txikian erretzen ari den ogia goizeko jatorduko usain goxoari gehitzen zaio xigortuz joan ahala.

Bezperan kateatu ez nuen bidea ibili dut buruan gau osoan zehar eta erdi ameslari erdi gautxori nengoela bururatu zaidan sistema berri bat probatzeko irrikitan nago. Kotxeko giltzak eta eskalatzeko motxila hartu eta eskalatzera abiatu naiz. Motxilaren sakonean 9,2mm eta 80m-ko soka, merkatuko zintarik laburreneko 10 expres, gri-gria, magnesio poltsa *guaya*, bost neurri txikiagoko velcro-dun katuoinak, sei neurri txikiagoko bailarinak eta berotzeko katuoin pare, arnes estua eta fin-fina, asteburuetan ligatzera joateko praka *estilo kasualekoak*, balearen isatsaren irudia ipurdiko poltsikoan dutenak eta hauekin batera ondo doan kamiseta pistatxo kolorekoa. Ah! eta litro erdi ur, sagar bat eta azenario bi.

Baltzolaria iritsi eta betiko bideari bi *pege* eman dizkiot berotzeko. Irrikitan nago nire gaurko proiektuari ekiteko, sistema berriak proban jartzeko eta harkaitzarekin beste egun batez dantzan egiteko. Gimnasia erritmikoko koreografia bailiran darabilzkit buruan bidearen pausu guztiak, atsendenak, txapajeak... Ongi dakit non lasaitu eta ongi dakit non egin behar dudana indarra. Eta hala ere, sokaren muturra arnesaren eraztunetik pasatzen ari naizen bitartean, tximeletak sentitzen ditut sabelean, gora begira.

Atzo eta gaur pertsona bera izan arren nire helburu, zirrara, erronka eta bizipenak aldatuz doaz eta Euskal Herriko mendi punta, magal eta zoko-moko guztiak beti eskainiko didate aurrerantz ezinezon hauek gauzatzeko. Bizitza eguneroko bizipenez josten dugun oihalkia da.